



EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko Programa
-bertsio exekutiboa-



**EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko
Programa
-bertsio exekutiboa-
(2022)**

Helburua	EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko Programaren edukia labur-labur eta modu ulergarrian azaltzea, errazago zabaldu eta ezagut dadin.
Onesteko sistema	<p>Administrazio Kontseiluan 2019ko uztailaren 23an aurkeztu da.</p> <p>Zuzendaritza Nagusiak 2019ko uztailaren 30ean onetsi du (bi urtean behingo berrikuspenak egingo dira).</p> <p>Ezarrita dagoen bezala, 2021ean berrikusi da.</p> <p>2022an berrikuspen orokor berri bat egin da, 1030/2021 Aginduaren argitalpenaren ostean.</p>
Eguneratzea	<p>Lehenengo edizioa: 2019-07-30</p> <p>Eguneratzeak:</p> <p>2021-03-31</p> <p>2022-05-01</p>

EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko Programaren laburpena

EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko Programa izeneko agiriak EiTB Taldean dauden arrisku penalak aztertzen, baloratzen eta kuantifikatzen ditu, erakundeetan jada ezarrita dauden prebentzio-neurriak aintzat hartuta, eta neurri berriak proposatzen ditu antzemandako maila handiko arriskuak onargarri bilaka daitezzen.

1) Baztertutako delituak

Zergatik utzi dira kanpo delitu jakin batzuk?	<p>Kode Penalak delitu jakin batzuk baino ez ditu zehazten pertsona juridikoei egozteko modukotzat.</p> <p>Delitu horietatik, guztiak ezin dira gertatu EiTB Taldearen esparruan (organoen trafikoa, adibidez), eta horregatik utzi behar dira azterketatik kanpo.</p>
Zer delitu utzi dira kanpo eta zergatik?	<p>2019ko bertsioan azterketatik kanpo utzi ziren hainbat delitu (zehazki lau) orain analisiaren esparruan sartu dira. Delitu horiek hurrengoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">⇒ Exekuzioaren frustrazioa (ZK 257, 258, 258 bis art.)⇒ Zigortzeko moduko kaudimen-gabeziak (ZK 259, 259 bis, 260, 261. Art.)⇒ Kapitalak zuritzea (ZK 301.art)⇒ Alderdi politikoen legez-kanpoko finantzazioa (ZK 304 bis. art.)⇒ Dirulaguntzatan iruzurra (ZK 308. art.)⇒ Ingurumena eta errekurtsio naturalen aurkako delitua (ZK 325. Art.) <p>Beraz, taula honetan grafikoki jasota daude EiTB Taldeko arriskuen azterketatik kanpo zer delitu utzi diren, 2021/2022ko errebisioaren ostean:</p>

Tipo penalaren deskribapena eta ZK-ko artikulua	Kanpo uzteko arrazoia
Organoen legez kanpoko trafikoa (ZK; 156 bis)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Gizakien trafikoa (ZK; 177 bis)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Prostituzioari eta adingabeak galbideratzeari buruzko delituak (ZK; 187, 188, 189)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
EBko aurrekontuei iruzur egitea (ZK; 306)	Ez da jarduerarik egiten EBko aurrekontuekin lotuta
Pertsonen legez kanpoko trafiko / immigrazio klandestinoko delitua (ZK; 318 bis)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Lurralde-antolaketari eta hirigintzari buruzko delituak (ZK; 319)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Energia nuklearri eta erradiazio ionizatzaileei buruzko delituak (ZK; 343)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Lehergaien eta bestelako agenteen arriskuagatiko delituak (ZK; 348)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Osasun publikoaren aurkako delituak (ZK; 359, 360, 261, 262, 362 bis, 362 ter, 362 quinquies,	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Dirua faltsifikatzea (ZK; 386)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Ordainbideak faltsifikatzea (ZK; 399 bis)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin
Funtsak terrorismorako biltzeko delitua (ZK; 571-580)	EiTBren helburu soziala diren jarduerak ez dute loturarik delitu-tipoaren osagaiekin

2) Aztertutako delituen definizioa

Intimitatearen aurkako delitua eta bortxatze informatikoa (ZK; 197)

- Hirugarren baten sekretuak deskubritzea edo haren intimitatea urratzea haren adostasunik gabe, eta haren paperak, gutunak, posta elektronikoko mezuak edo beste edozein agiri nahiz gauza hartzea eta telekomunikazioen artean esku sartzea soinua, irudia edo beste edozein komunikazio-seinale entzun, igorri, grabatu edo erreproduzitzeko trikimailu teknikoak erabiliz.
- Baimenik gabe, beste baten kalterako, beste baten datu pertsonal edo familiar isilpekoek jabetzea edo horiek erabili edo aldatzea, betiere erregistraturik daudenean fitxategi edo euskarri informatiko, elektronikoa edo telematikoetan, edo beste edozein motatako artxibo nahiz erregistro publiko edo pribatuetan.
- Datu pertsonalen edo familiarren fitxategietara baimenik gabe sartzea, edo titularraren kalterako horiek aldatu edo erabiltzea.
- Sistema informatiko batean edo haren zati batean jasotako datu edo programa informatikoetara baimenik gabe sartzea, edozein bitarteko edo prozedura erabiliz eta hori eragozteko ezarritako segurtasun-neurriak urratuta, edo horren barruan mantentzea, hura kanpoan uzteko eskubide legitimoa duenaren borondatearen kontra.

<p>Maula- eta iruzur-delitua (ZK; 248-251)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irabaziak lortzeko asmoz beste bati okerra eragiteko engainu nahikoa erabiltzea, bere buruaren edo beste baten kaltean egintzak gauzatzera induzituz. • Irabazia lortzeko asmoz edozein manipulazio informatikoz edo horren antzeko trikimailuz baliatuta, nolanhiko ondare-aktibo adostasunik gabe beste baten kaltean eskualdatzea lortzea. • Berariaz iruzurrak egiteko diren programa informatikoak egitea, sartzea, edukitzea edo ematea. • Kreditu- edo zordunketa-txartelak edo bidaia-txekeak edo horietan dauden datuak erabilia, titularraren edo hirugarrenen kaltetan edozein motatako operazioak egitea.
<p>Exekuzioan frustrazioa (ZK; 257, 258, 258bis)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hartzekodunen kalterako bere ondasunekin altxatzea. • Helburu berarekin ondarea xedatzeko edo betebeharrak sortzeko edozein egintza gauzatea, baldin eta egintza horrek luzatu, zaildu edo eragotzi egiten badu enbargoa edo prozedura betearazlea edo premiamenduzkoa, judiziala, judizioz kanpoko edo administratiboa, hasita edo hasteko modukoa. • Betearazpen-prozedura judizial edo administratibo batean, betearazpenaren ardura duen agintariak edo funtzionarioak ondasun-zerrenda edo ondare osatu gabea edo zuzendua aurkezten dionari, eta horrekin hartzekodunaren gogobetetzea luzatu, zaildu edo eragotzen duenari. • Ondasun- edo ondare-zerrenda osatugabetzat joko da betearazitako zordunak hirugarrenen titulartasuneko ondasunak erabiltzen edo baliatzen dituenean, eta gozamen hori babesten duen eskubidearen eta haren baldintzen behar besteko justifikaziorik aurkezten ez duenean. • Horretarako errekerimendua egin zaion zordunak aurreko paragrafoan aipatutako ondasunen edo ondarearen zerrenda ez erraztea.
<p>Zigortzeko moduko kaudimen gabezia (ZK 259, 259bis, 258 bis)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Konkurtsoa irekitzen den unean konkurtsoaren masan sartuta dauden edo sartuta egongo lirartekeen ondasunak edo ondare-elementuak ezkutatzea, kaltetzea edo suntsitzea. • Xedapen-egintzak egitea dirua edo beste ondare-aktibo batzuk emanaz edo transferituz, edo zorrak bere gain hartuz, zordunaren ondare-egoerarekin edo diru-sarrerekin proportziorik ez badute eta justifikazio ekonomikorik edo enpresarialik ez badute. • Salmenta-eragiketak edo zerbitzu-prestazioak egitea eskuratze- edo ekoizpen-kostua baino prezio txikiagoan, eta kasuaren inguruabarretan justifikazio ekonomikorik ez izatea.

	<ul style="list-style-type: none"> • Hirugarrenen kredituak simulatzea edo fikziozko kredituak aintzatestea. • Negozio espekulatiboetan parte hartzea, horrek justifikazio ekonomikorik ez duenean eta, kasuaren inguruabarretan eta garatutako jarduera ekonomikoa ikusita, gai ekonomikoen kudeaketan arduraz jokatzeko betebeharraren aurkakoa denean. • Kontabilitatea eramateko legezko betebeharra ez betetzea, kontabilitate bikoitza eramatea, edo bere ondare- edo finantza-egoera ulertzeko garrantzitsuak diren irregulartasunak egitea. Era berean, kontabilitate-liburuak suntsitzea edo aldatzea zigortzeko modukoa izango da, baldin eta, horrela, haien ondare- edo finantza-egoera ulertzea nabarmen zailtzen edo eragozten bada. • Legezko betebeharrak gauzatzeko epea amaitu baino lehen enpresaburuak gorde behar duen dokumentazioa ezkatzea, suntsitzea edo aldatzea, horrela zordunaren benetako egoera ekonomikoa aztertzea edo baloratzea zailtzen edo eragozten denean. • Urteko kontuak edo kontabilitate-liburuak formulatzea merkataritza-kontabilitatea arautzen duen araudiaren aurka, zordunaren benetako egoera ekonomikoaren azterketa edo balorazioa zailtzeko edo eragozteko moduan, edo balantzea edo inbentarioa epearen barruan egiteko betebeharra ez betetzeko moduan. • Ekonomia-gaien kudeaketan ardura-betebeharraren arau-hauste larria den eta zordunaren ondarea gutxitzea egotz dakioken edo zordunaren benetako egoera ekonomikoa edo enpresa-jarduera ezkatzen duen beste edozein jokabide aktibo edo ez-egite egitea. • Egungo edo berehalako kaudimengabezia-egoeran dagoen zordunak, hartzekodunetako bati mesede egitea, ondarea xedatzeko edo obligazioak sortzeko egintza bat eginez, galdagarria ez den kreditu bat ordaintzeko edo eskubiderik ez zuen berme bat emateko, justifikazio ekonomikoa edo enpresarialik ez duen eragiketa bat denean. • Zordunak, konkurtso-eskaera izapidetzeko onartu ondoren, horretarako ez judizialki ez konkurtso-administratzaileek baimenik eman gabe, eta legeak baimendutako kasuetatik kanpo, ondarea xedatzeko edo obligazioak sortzeko edozein egintza egitea, hartzekodun bati edo batzuei ordaintzeko, pribilegiatuak izan ala ez, gainerakoak atzeratuta.
<p>Kalte informatikoen delitua (ZK; 264)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Honako ekintza hauek edozein bitarteko erabiliz eta baimenik gabe egitea, betiere haien emaitza larria bada: <ul style="list-style-type: none"> ○ Beste batzuen datuak, programa informatikoak edo dokumentu elektronikoak ezabatzea, kaltetzea, narriatzea, aldatzea, ezeztatzea edo eskuraezin uztea.

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Beste baten sistema informatikoaren funtzionamendua oztopatzea edo etetea, datu informatikoak sartuz, igorritz, hondatuz, ezabatuz, narriatuz, aldatuz, deuseztatuz edo eskuraezin utziz.
<p>Jabetza intelektualaren aurkako delituak (ZK; 270)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Irabaziak lortzeko asmoz, inoren kaltean, jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo lagapen-hartzaileen baimenik gabe, oso-osoan edo zati batean, literatura-, arte- edo zientzia-lanen bat erreproduzitu, plagiatu, banatu edo jendaurrean zabaltzea; edota, edozein motatako euskarritan edo jendaurrean edozein motatako bide erabilia zabaldurik, lan horren transformazio, interpretazio edo antzezpen artistikoaren inguruan gauza bera egitea. • Baimen hori gabe horrelako produktuak nahita inportatzea, horien jatorria legezkoa izan edo ez jatorrizko herrian; betiere ez badira EBko estatu batetik inportatu eta estatu horretan eskubideen jabe denarengandik zuzenean edo haren baimenarekin eskuratu ez badira. • Edozein bitarteko fabrikatu, inportatu, zirkulazioan jarri edo edukitzea, baldin eta bitarteko horren helburu zehatza bada edozein eragingailu tekniko baimenik gabe ezaba edo neutraliza dadin erraztea, eta eragingailu hori erabili bada ordenagailu-programak edo bestelako lan, interpretazio nahiz antzezpenak babesteko, aurretik xedatutakoaren arabera.
<p>Jabetza industrialaren aurkako delituak (ZK; 273 -275)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Patente edo utilitate-modeloen babespeko objektu edo prozedurak egin, inportatu, eduki, erabili edo merkaturatzea, titularraren baimenik gabe. • Marka-legeriaren arabera erregistratuta dagoen jabetza industrialeko eskubide baten zeinu bereizgarri bera edo harekin nahastekoa den zeinu bereizgarria duten produktuak egin, ekoitzi edo inportatzea, erregistraturik daudela jakinda. • Marka-legeriaren arabera erregistratuta dagoen jabetza industrialeko eskubide baten zeinu bereizgarri bera edo harekin nahastekoa den zeinu bereizgarria duten produktuak eskaini, banatu, handizka merkaturatzea edo xede horretarako biltegitratzea, erregistraturik daudela jakinda, baldin eta erregistratuta dagoen jabetza industrialaren eskubidearen xede diren produktu, zerbitzu edo jarduera berberak edo antzekoak badira. • Marka-legeriaren arabera erregistratuta dagoen jabetza industrialeko eskubide baten zeinu bereizgarri bera edo harekin nahastekoa den zeinu bereizgarria duten produktuak eskaini, banatu, txikizka merkaturatzea, edo zerbitzuak eman edo jarduerak garatzea, erregistraturik daudela

	<p>jakinda, baldin eta erregistratuta dagoen jabetza industrialaren eskubidearen xede diren produktu, zerbitzu edo jarduera berberak edo antzekoak badira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Marka-legeriaren arabera erregistratuta dagoen jabetza industrialeko eskubide baten zeinu bereizgarri bera edo harekin nahastekoa dena erreproduzitu edo imitatzea, erregistraturik dagoela jakinda, azaldutako jokabideak egiteko erabiltzeko. • Aurreko ataletan aipatutako produktuak kalez kale edo noizbehinka saltzea. • Kalitate jakin baten adierazgarria den jatorri-deitura edo adierazpen geografiko bat, haren babesean dauden produktuak bereizteko legez babestuta dagoena, erabiltzea, babes horren jakitun izanik.
<p>Merkatuaren eta kontsumitzaileen aurkako delituak (ZK; 278-282)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresako sekretuak lapurtzea horri buruzko datuak, dokumentu idatziak edo elektronikoak, euskarri informatikoak edo bestelako objektuak edozein bitarteko erabiliz, edota soinua, irudia edo beste edozein komunikazio-seinale entzun, grabatu edo erreproduzitzeko trikimailu teknikoak erabiliz. • Ezagututako sekretuak hirugarrenei hedatzea, agerraraztea edo lagatzea. • Legez edo kontratuz isilpea zaintzeko betebeharra izanik, enpresaren sekretu bat hedatu, agerrarazi edo lagatzea. • Merkatuko lehengaiak edo oinarritzko beharrianetarako produktuak murriztea, merkatuko sektore batean hornidurak ez izateko, prezioak aldarazteko edo kontsumitzaileei kalte larria egiteko asmoarekin. • Fabrikatzaile edo merkatariek ekoizkin edo zerbitzuak eskaintzean edo horiei buruz publizitatea egitean alegazio faltsuak egitea, edo ziurrak ez diren ezaugarriak adieraztea, kontsumitzaileei kalte larri eta nabaria eragiteko moduan.
<p>Negoioetako ustelkeria-delituak (ZK; 286 bis-286 ter)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Justifikatu gabeko era guztietako onura edo abantaila jasotzea, eskatzea edo onartzea (bere kabuz edo beste inoren bidez), berarentzat edo hirugarren batentzat, beste bati bidegabeko mesedea egitearen ordainetan (ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko kontratuetan edo merkataritza-harremanetan). • Justifikatu gabeko era guztietako onura edo abantaila agintzea, eskaintzea edo ematea (bere kabuz edo beste inoren bidez), enpresa bateko zuzendari, administratzaile edo laguntzaileentzat edo hirugarrenentzat, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan edo merkataritza-harremanetan berari edo beste bati beste batzuen aurrean bidegabeko mesedea egitearen ordainetan.

	<ul style="list-style-type: none"> Bidegabeko edozein onura edo abantaila, diruzko edo bestelakorik, bere kabuz edo beste inoren bidez, eskainiz, aginduz edo emanaz, agintari edo funtzionario publiko bat usteltzea edo usteltzen saiatzea, haien edo hirugarren baten mesedetan, edo horri buruzko haien eskaerak onartzea, funtzio publikoetan jardutean zerbait egin dezaten edo egin ez dezaten, nazioarteko jardura ekonomikoak gauzatzean kontratu bat edo bestelako onura bat lortzeko zein horri eusteko.
Kapitalak zuritzea (ZK 301-304)	<ul style="list-style-type: none"> Norbaitek ondasunak eskuratu, eduki, erabili, bihurtu edo eskualdatzea, jakinda ondasun horien jatorria delituzko jardura bat dela, berak edo beste edozein pertsonak egindakoa, edo beste edozein egintza egitea bere jatorri ez-zilegia ezkutatze edo estaltzeko, edo arau-haustean parte hartu duen pertsonari edo arau-hausteei bere egintzen legezko ondorioak saihesten laguntzeko. Ondasunek jatorria dutenean droga toxiko, estupefaziante edo substantzia psikotropikoen trafikoarekin lotutako delituren batean. Ondasunen edo jabetzaren gaineko benetako izaera, jatorria, kokapena, xedea, mugimendua edo eskubideak ezkutatzea edo estaltzea, aurreko paragrafoan adierazitako delituren batetik edo horietan parte hartzeko egintza batetik datozela jakinda.
Alderdi politikoen legez kanpoko finantziazioa (ZK; 305)	<ul style="list-style-type: none"> Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 5.Bat artikuluan xedatutakoa urratuz alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarte bati zuzendutako dohaintzak edo ekarpenak jasotzea eta/edo ematea.
Iruzur fiskaleko delituak (ZK; 305)	<ul style="list-style-type: none"> Egitez edo ez-egitez, Estatuko, autonomia-erkidegoko, foru-aldundiko edo tokiko herri-ogasunari iruzur egitea, zergen ordainketari, atxikitako edo atxiki beharreko kopuruen ordainketari, edo gauzez egindako ordainsarien konturako sarrerren ordainketari itzuri eginez edo bidegabe itzulketak lortuz, edo zerga-onurak ere bidegabe hartuz, iruzurpeko kuotaren zenbatekoa, edo bidegabe lortu nahiz hartutako atxikipenen, konturako sarrerren, itzulketen edo zerga-onuren ordaindu gabeko zenbatekoa ehun eta hoge mila euro baino gehiagokoa denean, zerga-egoera erregularizatu ezean. Jokabide horiek Europar Batasuneko Ogasunaren aurka egitea, iruzur eginez lortutako zenbatekoa urte naturaleko epean berrogeita hamar mila euro baino gehiago denean.
Gizarte Segurantzaren	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Segurantzari iruzur egitea haren kuotak eta baterako bilketako kontzeptuak ordaintzeari itzuri eginez, haien itzulketa bidegabe lortuz

<p>aurkako iruzur-delitua (ZK; 307)</p>	<p>edo edozein kontzepturengatik bidegabeko kenkariak eskuratuz, betiere iruzurpeko kuoten edo bidegabeko itzulketa edo kenkarien zenbatekoa berrogeita hamar mila euro baino gehiagokoa denean, administrazioaren ikuskatzeko edo kontrolatzeko jarduketak edo jarduketa judizialak hasiko direla ezagutu aurretik, Gizarte Segurantzarekiko egoera erregularizatu ezean.</p>
<p>Kontabilitatea faltsutzearen delitua (ZK; 310)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Kontabilitatea edo kontabilitate-erregistroak eramateko betebeharra inola ere ez betetzea. • Egoerari berari dagokionez kontabilitate ezberdinak eramatea. • Kontabilitateko idatzoharrak faltsutzea edo kontabilitate-liburuetan gezurrezko idatzoharrak egitea.
<p>Dirulaguntzetan iruzurra (ZK; 308)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Norbaitek herri-administrazioetatik, Europar Batasuna barne, ehun mila eurotik gorako diru-laguntza edo laguntzak jasotzea, diru-laguntza edo laguntza horiek emateko eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza edo laguntza horiek galarazten dituztenak ezkutatuz salbu eta lortutako diru-laguntzaren itzulketa egiten badu. • Osorik edo zati batean herri-administrazioen funtsekin (Europar Batasuna barne) ordaindutako jarduera bat garatzea, ehun mila eurotik gorako zenbatekoan aplikatzen dituenari, diru-laguntza edo laguntza eman zeneko helburuez bestelakoetarako, itzulketa gauzatzen duenean izan ezik.
<p>Errekurtso natural eta ingurumenaren kontrako delituak (ZK; 325)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumena babesten duten legeak edo bestelako xedapen orokorrak urratuz, isuriak, erradiazioak, erauzketak edo indusketak, lurreratzeak, zaratak, bibrazioak, injekzioak edo andelak eragin edo egitea zuzenean edo zeharka, atmosferan, lurzoruan, lurpean edo lurpeko, lurpeko edo itsasoko uretan, baita itsas zabalean ere, mugaz gaindiko espazioetan ere eragina badu, bai eta ur-bilketek, ur-bilketek edo bestelako ur-bilketek batera eragin ditzaketen kalteek ere.
<p>Funtzionario-eroskeriaren delitua (ZK; 419)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Era guztietako opariak edo ordainsariak ematea edo eskaintzea edozein agintariri edo funtzionariori edo, duen kargua edo eginkizun publikoa dela eta, funtzio publikoa betetzen duen edozein pertsonari, honako hau lortzeko: <ul style="list-style-type: none"> ○ Karguari datxezkion betebeharren aurkako egintza edo bere karguaren berezko egintza egin dezan, edo ○ Egin behar duena ez dezan egin edo geroratu dezan.
<p>Influentzia-trafikoaren delitua (ZK; 428-430)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Funtzionario publiko edo autoritate batengan eragitea elkarren arteko harremanak edo beste funtzionario publiko edo autoritate batekiko harremanak emandako nagusitasuna baliatuta, norberarentzat edo

	<p>hirugarren batentzat zuzenean edo zeharka etekin ekonomikoa eragingo duen ebazpen bat lortzeko.</p>
<p>Talde edo elkarten aurkako bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria eragitearen delitua (ZK; 510)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arrazoi arrazista edo antisemitengatik egindako delituak, edo honako hauei dagokienez egindakoak: ideologia, erlijioa edo sinesmenak, familia-egoera, haren kideak talde, etnia, arraza edo nazio batekoak izatea, jatorri nazionala, sexua, sexu-orientazio edo -nortasuna, genero-arrazoa, gaixotasuna edo desgaitasuna: <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde horren edo haren zati baten kontra edo pertsona jakin baten kontra gorrotoa, ezinikusia, bereizkeria edo indarkeria, zuzenean edo zeharka, bultzatu edo eragitea aipatutako taldeko kidea izateagatik. ○ Pertsonen duintasunari kalte egitea aurreko atalean aipatutako taldeetako baten edo haien zati baten edo pertsona jakin baten umilazioa, gutxiespena edo izen txarra dakarten ekintzen bitartez, haietako kidea izateagatik.
<p>Bidegabeko eralgitzearen delitua (ZK; 432-434)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Beste inoren ondarea administratzeko ahalak legez, agintaritzak emanda edo negozio juridiko baten bidez gain hartuta dituztenek, ahal horiek egikaritzean, ahalok urratu, eta gehiegikeriak egitea, eta, horren ondorioz, administratutako ondareari kaltea eragitea. • Beste baten kaltean, beraiantzat edo hirugarren batentzat diruaz, gauzez, baloreez edo beste edozein higigarri jabetzea, hura jaso badute gordailatzeko, komisioan edo zaintzeko, edota haiek emateko edo itzultzeko betebeharra sorrazten duen beste edozein tituluren ondorioz, edota horiek jaso dituztela ukatzea. • Faltsutzea, lanean ari den erakundeari kalte ekonomikoa egiteko moduan, erakunde horren egoera ekonomikoaren berri eman behar duten agiriak edo horietan jasotako informazioa, aipatutako erakundeari kaltea eragiteko. • Hirugarrenei ematea, lanean ari den erakundeari kalte ekonomikoa egiteko moduan, aipatutako erakunde horren egoera ekonomikoari buruzko gezurrezko informazio edo aurreko puntuan aipatutako agiri edo informazioetakoren bat.
<p>Langileen eskubideen aurkako delitua (ZK; 311-317)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzupeko langileak, engainuaren bidez edo inoren beharrian-egoeraz abusatuz, laneko edo Gizarte Segurantzako baldintza txarretan jartzea, baldintzok kalte egiten badiete legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo banakako kontratuaren bidez langileentzat aintzatetsitako eskubideei, edo eskubideok ezabatu edo murrizten badituzte.

- Aldi berean langile talde bati lana ematea, Gizarte Segurantzaren dagokien erregimenean alta ematen ez badiete edo, dagokionean, lan-baimena lortu ez badute. Horretarako, honako hau izan beharko da gutxienez langileen kopurua:
 - ehun langile edo gehiago dituzten enpresa edo lan-zentroetan, langileen ehuneko hogeita bost, edo
 - hamar langile baino gehiago eta ehun baino gutxiago dituzten enpresa edo lan-zentroetan, langileen ehuneko berrogeita hamar.
- Lan-baimenik ez duten atzerritarrak, behin eta berriz, enplegatzea edo okupatzea, edo lan-baimenik ez duen adingabe bat enplegatzea edo okupatzea.
- Engainatuz edo premia-egoeraz baliatuz, askatasun sindikalaren erabilera edo grebarako eskubidea eragozteko edo mugatzea.
- Eskulanarekin legez kontra trafikatzeko.
- Pertsonak biltzea edo duten lanpostua uztera bultzatzea enplegua edo lan-baldintza engainagarriak edo faltsuak eskainita, eta lan-baimenik ez duten atzerritarrak enplegatzea legezko xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo banako kontratu bidez aitortuta dituzten eskubideei kalte egiten dieten, edo horiek ezabatzen edo murrizten dituzten baldintzetan.
- Pertsonaren batek beste herrialde batera emigratzea eragitea edo laguntzea, kontratua edo enplegua simulatuta edo antzeko beste engainu batez baliatuta.
- Enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sorraraztea eta, administrazioaren aginduen edo zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi direla pertsonaren ideologia, erlijioa nahiz sinesmenak; edo etnia, arraza nahiz nazio batekoa izatea; edo sexua, sexu-joera, familia-egoera nahiz gaixotasun edo minusbalotasunen bat izatea; edo langileen lege- ordezkaria zein ordezkari sindikala izatea; edo enpresaren beste langile batzuekin senidetasuna izatea edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea.
- Engainatuz edo premia-egoeraz baliatuz, askatasun sindikalaren erabilera edo grebarako eskubidea eragozteko edo mugatzea.
- Laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak hautsiz eta legez horretarako betebeharra izanik, beharrezko bideak ez erraztea, langileek euren jardura egikari dezaten segurtasun eta higieneko neurri egokiek,

	betiere langileen bizia, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jartzen dutenean.
--	---

3) EiTB MEDIA, SAUri ezartzeko moduko zehapenak

1. Zenbait zenbatekotako isunak, lortu diren etekinen arabera, hala dagokionean.
2. Desegitea, jarduerak etetea, lokalak edo establezimenduak ixtea.
3. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko desgaikuntza.
4. Sektore publikoarekin kontratatzeke debekua.
5. Onura edo pizgarri fiskalak edo Gizarte Segurantzarenak izateko debekua.
6. Esku-hartze judiziala.

4) Lehendik zeuden eta EiTB Taldeko Delituak Ekiditeko Programa onartu ondoren ezarritako prebentzio-neurriak

a. Lehendik zeuden neurriak

1. Kontuen ikuskapena
2. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren ikuskapena
3. Datuen babesa
4. Laneko arriskuen prebentzioa
5. Kalitate-ziurtagiria
6. Ingurumen arloko ziurtagiria
7. OHSAS ziurtagiria
8. Gizarte-erantzukizun korporatiboaren ziurtagiria
9. Bereizkeriaren aurkako / kontziliaziorako politikak
10. Zerbitzuak kontratuei egokitzen zaizkiela urtero kontratatzea (RSC1)
11. Fakturazio-sistemaren kontrola (RGFF1)
12. Baliabideak helburu edo ekintza-planei egozten zaizkiela kontrolatzea (RGFGP1)
13. Aurrekontuaren jarraipen- eta kontrol-prozesuaren kontrola (RGFGP3)
14. Egile-eskubideak urratzearen ondoriozko auzien kontrola (RLPI1)
15. Langileak kontrolatzeko prozesuen kontrola (RHHC1)
16. Kontratatzeke arauak betetzearen kontrola (RHHC2)
17. Jazarpenaren aurkako protokoloa
18. Estatutua eta Erredakzio Kontseilua

19. Sare sozialetako jardunbide egokien dekalogoak eta eskuliburuak
20. Babesak trukitzea
21. Bidezko prestasuna hornitzaileekin
22. Kontratazio-politika
23. Goi-mailako kargudunen kode etikoa
24. Babesei buruzko arauak
25. Edukiei buruzko autorregulazio-kodeak
26. EiTBren hedabideetan publizitatea emateko gure arauak
27. Publizitateari buruzko legeria betetzea bermatzeko prozesua (RVCC4_7)
28. Ikusentzunezko edukiak kontratatzekeo prozedura

b. Delituak Ekiditeko Programa indarrean jarri ondoren ezarritako neurriak

29. Salaketa-kanala
30. Kontrol Organo Independentea
31. Zehapen-prozedura
32. Langileen prestakuntza eta kontzientziazio ekintzak
33. EiTB Taldeko Etika eta Jokabide Kodea
34. Oparien politika
35. SPKLri lotutako kontratu txikiak formalizatzeko prozedura

5) Arrisku-maparen azken koadroa

DELITO	2019	2021	2021 REVISION PROBABLEAD (1-9)							2021 REVISION CONTROLES							Probabilidad mitigada	Riesgo residual 2021	
			GInt	Dim	Sect	Geo	Hst	Or	Media	Probabilidad bruta	Impacto riesgo	Riesgo Score 2021	Nº Cnt Espel. eficacia ATA	Nº Cnt Espel. eficacia METN	Nº Cnt Espel. eficacia BAVA	Nº Control CRILES (JAK- BI)			Reduccion probabilidad por control (1-7-10)
D04-DESCUBRIMIENTO Y REVELACION DE SECRETOS Y ALLANAMIENTO INFORMATICO	analizado	analizado	8	6	8	1	7	4	5,7	3-Media	2-Mayor	3-Importante	0	3	0	3-2-2	0	3-Media	3-Importante
D05-ESTAFIA	analizado	analizado	4	6	2	1	1	4	3,0	2-Baja	2-Moderado	5	0	3	3-2-2	2	1-Mitina	1-Bajo	
D06-FRUSTRACION DE LA EJECUCION	excluido- revisable	analizado	7	6	2	1	1	1	3,0	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	1	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D07-INSOLVENCIAS PUNIBLES	excluido- revisable	analizado	7	6	2	1	1	1	3,0	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	1	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D08-DAÑOS INFORMATICOS	analizado	analizado	6	5	1	1	1	4	3,2	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	1	2	0	3-2-2	0	2-Baja	1-Bajo
D09-CONTROL LA PROPIEDAD INDUSTRIAL	analizado	analizado	4	9	4	1	1	4	3,8	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	2	0	0	3-2-2	0	2-Baja	3-Importante
D09-CONTROL LA PROPIEDAD INTELECTUAL	analizado	analizado	6	9	9	1	9	4	6,3	3-Media	2-Mayor	3-Importante	2	0	2	3-2-2	0	3-Media	3-Importante
D05-DELITOS CONTRA EL MERCADO Y LOS CONSUMIDORES-SECRETOS EMPRESA	analizado	analizado	4	8	5	1	3	4	4,3	2-Baja	2-Moderado	1	3	1	3-2-2	1	1-Mitina	1-Bajo	
D08-CORUPCION EN LOS NEGOCIOS	analizado	analizado	4	9	4	1	7	4	4,8	3-Media	1-Menor	2-Moderado	7	2	5	3-2-2	2	1-Mitina	0-Intermedio
D10-BLANQUEO DE CAPITALES	excluido (ma)	analizado	9	5	4	1	1	4	4,2	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	1	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D11-FINANCIACION ILEGAL DE LOS PARTIDOS POLITICOS	excluido (ma)	analizado	9	6	4	1	1	4	4,2	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	0	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D12-CONTROL LA SEGURIDAD SOCIAL	analizado	analizado	4	9	4	1	3	4	4,2	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	0	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D12-FRAUDE CONTABLE	analizado	analizado	9	6	4	1	1	1	3,7	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	1	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D12-FRAUDE DE SUBVENCIONES	excluido- revisable	analizado	4	6	4	1	1	4	3,3	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	0	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D12-FRAUDE TRIBUTARIO (+apto UE)	analizado	analizado	4	8	4	3	3	4	4,3	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	3	0	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D15-CONTROL LOS RECURSOS NATURALES Y EL MEDIO AMBIENTE	excluido	analizado	4	6	3	4	1	1	3,2	2-Baja	1-Menor	1-Bajo	2	0	0	3-2-2	1	1-Mitina	0-Intermedio
D21-COHECHO	analizado	analizado	7	9	7	1	1	4	4,8	3-Media	2-Mayor	3-Importante	8	3	6	3-2-2	2	1-Mitina	1-Bajo
D21-VALVERACION	analizado	analizado	7	9	7	1	1	4	4,8	3-Media	2-Mayor	3-Importante	6	3	6	3-2-2	2	1-Mitina	1-Bajo
D22-TRAFICO DE INFLUENCIAS	analizado	analizado	7	9	7	1	1	4	4,8	3-Media	2-Mayor	3-Importante	8	3	6	3-2-2	2	1-Mitina	1-Bajo
D23-ODIO Y ENALTECIMIENTO	analizado	analizado	9	9	9	1	1	4	5,5	3-Media	3-Critico	4-Intermedio	3	2	0	3-2-2	1	2-Baja	2-Moderado
D25-CONTROL LOS DERECHOS DE LOS TRABAJADORES	analizado	analizado	7	9	4	1	5	4	5,0	3-Media	2-Mayor	3-Importante	8	0	0	3-2-2	2	1-Mitina	1-Bajo